**PROGRAMA**

4622 MEMORIAREN, BIZIKIDETZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN INSTITUTUA

***PROGRAMA***

*4622 INSTITUTO DE LA MEMORIA, LA CONVIVENCIA Y LOS DERECHOS HUMANOS*

**ARDURADUNA**

42 MEMORIAREN, BIZIKIDETZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN INSTITUTUA

ZUZENDARIA

***RESPONSABLE***

*42 INSTITUTO DE LA MEMORIA, LA CONVIVENCIA Y LOS DERECHOS HUMANOS*

*DIRECTOR/A*

## HELBURUA

KUDEAKETA- ETA KOORDINAZIO-PROIEKTUAK

1 BAKERAKO ETA BIZIKIDETZARAKO IDAZKARITZAREKIN BATERA LAN EGITEA

2. BESTE MEMORIA-ERAKUNDE BATZUEKIN KOORDINATZEA

3.- MEMORIA HISTORIKOARI BURUZ LANKIDETZAN ARITZEA EAE-KO INSTITUZIOEKIN

4.- MEMORIAREN EGUNA KOORDINATZEA ETA SUSTATZEA

IKERKETA ETA ARTXIBO PROIEKTUAK

1.- MEMORIARI BURUZKO IKERKETAK EGITEKO ETA ARTXIBATZEKO TRESNAK SORTZEA

2.- MEMORIA HISTORIKOAREN EGIA ARGITZEA

3.- IKUS-ENTZUNEZKO FUNTS BAT SORTZEA, AZKEN GARAIKO MEMORIARI BURUZ.

PROIEKTU DIBULGATIBOAK

1.- GOGORAREN DIBULGAZIO-LANERAKO BALIABIDEAK SORTZEA

2.- MEMORIA HISTORIKOAREN GUNEAK IDENTIFIKATZEA

3.- AZKEN GARAIKO MEMORIAREN HEZKUNTZA-EKARPENAK

## *OBJETIVO*

*PROYECTOS DE GESTION Y COORDINACIÓN*

*1. TRABAJO CONJUNTO CON LA SECRETARIA PARA LA PAZ Y LA CONVIVENCIA*

*2. COORDINACIÓN CON OTRAS INSTITUCIONES MEMORIALES*

*3. COLABORACIÓN CON INSTITUCIONES VASCAS SOBRE MEMORIA HISTÓRICA*

*4. COORDINACIÓN Y PROMOCIÓN DEL DÍA DE LA MEMORIA*

*PROYECTOS DE INVESTIGACIÓN Y ARCHIVO*

*1. CREACIÓN DE HERRAMIENTAS DE INVESTIGACIÓN SOBRE MEMORIA Y DE ARCHIVO.*

*2. ESCLARECIMIENTO DE LA VERDAD DE LA MEMORIA HISTÓRICA*

*3. CREACIÓN DE UN FONDO AUDIOVISUAL PÚBLICO SOBRE MEMORIA RECIENTE*

*PROYECTOS DIVULGATIVOS*

*1. CREACIÓN DE RECURSOS PARA LA ACTIVIDAD DIVULGADORA DE GOGORA*

*2. IDENTIFICACIÓN DE ESPACIOS DE MEMORIA HISTÓRICA*

*3. APORTACIONES EDUCATIVAS DE LA MEMORIA RECIENTE*

## BETETZE MAILA

### KUDEAKETA- ETA KOORDINAZIO-PROIEKTUAK

**1 BAKERAKO ETA BIZIKIDETZARAKO IDAZKARITZAREKIN BATERA LAN EGITEA**

Hasiera batean, elkarrekin finantzatu dugu 1936-78 aldiko giza eskubideen urraketari buruzko oinarrizko txostenaren garapena egitea.

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

### *PROYECTOS DE GESTION Y COORDINACIÓN*

***1. TRABAJO CONJUNTO CON LA SECRETARIA PARA LA PAZ Y LA CONVIVENCIA***

*Se ha financiado conjuntamente en un comienzo la realización del desarrollo del Informe-base de vulneración de los derechos humanos en el periodo 1936-78.*

### 2. BESTE MEMORIA-ERAKUNDE BATZUEKIN KOORDINATZEA

Bakearen Museoko Patronatuak Gernikako Bonbardaketari eta Euskadin gerra zibilak eta gerraosteak eragin zuten egoerari eskainitako museo-proiektu bat egitea onetsi du, ekitaldi honetan egin den plan museologiko eta museografikoaren aurreproiektua eta proiektu-proposamena kontuan hartuta. Terrorismoaren Biktimen Memorialarekin harremanetan egon gara, memoriaren eremuko ekintza zehatzak elkarrekin egiteko. Beste autonomia erkidego batzuetan egin diren topaketa, bilera eta kongresuetan parte hartu dugu: Iruñean (martxoak 15-16), Madrilen (maiatzak 23), eta “Cuerpos Incómodos: Violencia masiva, fosas comunes y necro-política” izeneko kongresuaren koordinatzaile izan gara. Nazioarteko zenbait erakunderekin harremanetan jartzen hasi gara: Buenos Airesko garai bateko Escuela de Mecánica de la Armada (ESMA) zegoen lekuan dagoen memoriaren museoarekin eta “Memorial du Camp D’Argeles Sur Mer” izenekoarekin.

### *2. COORDINACIÓN CON OTRAS INSTITUCIONES MEMORIALES*

*El Patronato del Museo de la Paz ha aprobado un nuevo proyecto museológico que se dedicará al bombardeo de Gernika y a la guerra y posguerra en Euskadi, en base al anteproyecto y propuesta de proyecto del plan museológico y museográfico realizado en este ejercicio. Se han mantenido contactos con el Memorial de Víctimas de Terrorismo, con el objetivo de compartir acciones concretas en el ámbito de la memoria. Se ha participado en encuentros, reuniones y congresos con otras CCAA: Pamplona (15-16 marzo), Madrid (23 mayo), siendo coordinadora en el congreso "Cuerpos incómodos: Violencia masiva, fosas comunes y necro-política". Han tenido inicio los contactos con entidades a nivel internacional: con el museo de la Ex esma de Buenos Aires y con el "Memorial du Camp D"argeles Sur Mer".*

### 3.- MEMORIA HISTORIKOARI BURUZ LANKIDETZAN ARITZEA EAE-KO INSTITUZIOEKIN

Uztailean, foru aldundiekin lankidetzan aritzeko protokoloak aurkeztu zitzaizkion Zuzendaritza Kontseiluari, memoria historikoari buruzko politikak koordinatzeko eta partekatzeko. Sinbologia frankista kentzen aurrera egin da; nabarmentzekoak: Bilboko, Gasteizko, Muxikako eta Legutioko Udalak. Orain, kentzeko geratzen diren gehienak eraikin partikularretan dauden plakak dira. Urte honetan 25 pertsonen gorpuzkiak ehortzi dira Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan, horietatik 4 identifikatuta.

### *3. COLABORACIÓN CON INSTITUCIONES VASCAS SOBRE MEMORIA HISTÓRICA*

*En julio se presentó al Consejo de Dirección los protocolos de colaboración con las Diputaciones Forales para coordinar y compartir las políticas de memoria histórica. Se ha avanzado en la retirada de simbología franquista, destacando en ello los Ayuntamientos de Bilbao, Gasteiz, Muxika y Legutio. La que queda por retirar, consiste, mayoritariamente, en placas que se encuentran en edificios particulares. Durante este año se han inhumado los restos de 25 personas en el Columbario de la Dignidad de Elgoibar, 4 de ellas identificadas.*

### 4.- MEMORIAREN EGUNA KOORDINATZEA ETA SUSTATZEA

Gogorak urtero Memoriaren Eguna ospatu dadin bultzatu du, eta proposamenak bidali dizkie erakundeei 2018an egitekoa zen egun horretarako: hain zuzen ere, institutuaren ikus-entzunezko baliabideak jarri ditu erakunde horien eskura, lekukotasunen eta dokumentalen bilduma erabilita.

### *4. COORDINACIÓN Y PROMOCIÓN DEL DÍA DE LA MEMORIA*

*Gogora ha promocionado la celebración anual del Día de la Memoria y, con tal objetivo ha remitido propuestas a las instituciones para la conmemoración del mismo en 2018, habiendo puesto a disposición de las mismas los recursos audiovisuales del Instituto a través del repositorio de testimonios y documentales.*

## IKERKETA ETA ARTXIBO PROIEKTUAK

### 1.- MEMORIARI BURUZKO IKERKETAK EGITEKO ETA ARTXIBATZEKO TRESNAK SORTZEA

Bukatu da «Giza eskubideen urraketei buruzko oinarrizko txostenaren (1936-78)» lehenengo fasea. Gogorak gordailu digital bat du (DESPACE), eta gordailu horretara irauli dira orain arte egin diren ikerketak. Horretaz gain, ikus-

## *PROYECTOS DE INVESTIGACIÓN Y ARCHIVO*

### *1. CREACIÓN DE HERRAMIENTAS DE INVESTIGACIÓN SOBRE MEMORIA Y DE ARCHIVO.*

*Se ha finalizado la primera fase del Informe-base de vulneraciones de derechos humanos (1936-78). Gogora cuenta con un repositorio digital (DSPACE) en el que se han ido volcando las distintas investigaciones realizadas*

entzunezkoak ikusteko gela bat ere badago egoitzan, biktimen lekukotzen funtsa jendearen eskura jartzeko.

### 2.- MEMORIA HISTORIKOAREN EGIA ARGITZEA

Aranzadirekin batera gauzatzen ari den Desagertuak aurkitzeko Euskal Planarekin aurrera jarraitu da, eta bi desobiratze egin dira. 2018an, banakako txostenak egiteko 377 eskaera izan dira, eta, guztira, 2.350 eskaera aurkeztu dira orain arte. DNA probak egiteko gerra zibilean desagertutakoen familiarren beste 74 eskaera aurkeztu dira. Ekainean, memoria historikoaren proiektuetarako dirulaguntza deialdi bana egin zen, eta, guztira, elkarteek aurkeztutako 18 proiektu eta udalen beste 23 lagundu dira diruz.

### 3.- IKUS-ENTZUNEZKO FUNTS BAT SORTZEA, AZKEN GARAIKO MEMORIARI BURUZ.

Biktimen lekukotzak grabatzeko Gertu programaren esparruan, beste 8 biktimen lekukotzak jaso dira. Ildo beretik, bake eta giza eskubideen arloko gizarte-mugimenduekin erlazionatutako pertsonen lekukotzak grabatzeko preprodukzio-lanei ere ekin zaie. Euskadin Gerra Zibiletik gaur egunera bitarteko memoria demokratikoa berreskuratzeko asmoa duten ikus-entzunezko proiektuak egiteko dirulaguntza deialdi bat egin da, eta 5 proiekturi eman zaie dirulaguntza.

## PROIEKTU DIBULGATIBOAK

### 1.- GOGORAREN DIBULGAZIO-LANERAKO BALIABIDEAK SORTZEA

Ekainetik Gogorak liburutegi publiko bat du, edonorentzat zabalik, eta, besteak beste, liburuak mailegatu eta memoriari buruzko Institutuaren funts bibliografikoak eta ikus-entzunezkoak kontsulta daitezke. Guztira, 1.529 ale daude. 2018. urtean zehar Memoria Plaza erakusketa beste zazpi lekutan egon da. Guztira 37.600 pertsonak hartu dute parte; horietatik 5.250 DBHko 4. mailako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleak izan dira. Nabarmentzekoa da Memoria Plaza erakusketa bi unibertsitatean ere izan dela: Mondragon eta Deustuko unibertsitateetan. Une honetan, Maria Diaz Haroko kaleko 3. zenbakian kokatzekoa den erakusketa iraunkorraren proiektuaren zirriborroa egiten ari dira.

### 2.- MEMORIA HISTORIKOAREN GUNEAK IDENTIFIKATZEA

Memoriaren ibilbideak berreskura daitezen bultzatzen ari

*hasta el momento. Además, en su sede se dispone de una sala de visionado de contenido audiovisual con el objetivo de poner a disposición del público general el fondo de testimonios de víctimas.*

### *2. ESCLARECIMIENTO DE LA VERDAD DE LA MEMORIA HISTÓRICA*

*Se ha seguido con el Plan Vasco de búsqueda de desaparecidos, en colaboración con Aranzadi, y en el transcurso del año se han llevado a cabo dos exhumaciones. A lo largo de 2018 se han recibido 377 solicitudes para la realización de informes individualizados, siendo el total de solicitudes presentadas hasta la fecha de 2.350. También se han presentado un total de 74 nuevas solicitudes de realización de pruebas de ADN por parte de familiares de desaparecidos en la guerra civil. En junio se convocaron sendas subvenciones para proyectos de memoria histórica, habiendo sido subvencionados un total de 18 proyectos de asociaciones y 23 de ayuntamientos.*

### *3. CREACIÓN DE UN FONDO AUDIOVISUAL PÚBLICO SOBRE MEMORIA RECIENTE*

*En el marco del programa Gertu de grabaciones de testimonios de víctimas, se han recogido 8 nuevos testimonios de víctimas. Asimismo, se ha iniciado el trabajo de preproducción para la grabación de testimonios de personas vinculadas a movimientos sociales para la paz y los derechos humanos. Se ha convocado una subvención para la realización de proyectos audiovisuales que abordan la recuperación de la memoria democrática de Euskadi desde la guerra civil hasta la actualidad y se han subvencionado 5 proyectos.*

## *PROYECTOS DIVULGATIVOS*

### *1. CREACIÓN DE RECURSOS PARA LA ACTIVIDAD DIVULGADORA DE GOGORA*

*Desde junio Gogora cuenta con biblioteca abierta al público, con servicio, entre otros, de préstamo bibliotecario y de consulta de los diferentes fondos bibliográficos y audiovisuales de memoria del Instituto. Se cuenta con un total de 1.529 ejemplares. A lo largo de 2018 la exposición Memoria Plaza ha tenido 7 nuevos emplazamientos, con una participación total de 37.600 personas, de las que 5.250 son alumnos y alumnas de 4. de la ESO, Bachiller y Formación Profesional. Es de destacar la realización de Memoria Plaza en dos universidades: la de Mondragón y la de Deusto. En estos momentos se está definiendo el borrador del proyecto expositivo permanente a ubicar en el patio de Maria Díaz de Haro, número 3.*

### *2. IDENTIFICACIÓN DE ESPACIOS DE MEMORIA HISTÓRICA*

*Se ha impulsado la recuperación de itinerarios de la*

dira, esate baterako Burdin Hesia, honako herri hauetan: Galdakao, Ugao-Miraballes, Gueñes, Arrankudiaga, Barrika, Berango, Gamiz-Fika, Larrabetzu, Jatabe, Urduliz eta Zeberion. Gernika-Lumoko Udalarekin batera Gernikako memoriaren ibilbidea aurkeztu da. Herri horretan izandako bonbardaketaren 11 puntu esanguratsuenetatik pasatzen da ibilbidea

*memoria, como el Cinturón de Hierro, en localidades tales como Galdakao, Ugao-Miraballes, Güeñes, Arrankudiaga, Barrika, Berango, Fika-Gamiz, Larrabetzu, Maruri-Jatabe, Urduliz y Zeberio. Se ha presentado, junto con el Ayuntamiento de Gernika-Lumo, el itinerario de la memoria de Gernika, que consiste en un recorrido por los 11 puntos más significativos del bombardeo padecido por la villa.*

## 3.- AZKEN GARAIKO MEMORIAREN HEZKUNTZA-EKARPENAK

Liburutegiaren irekiera ekitaldian “Literatura eta memoria” izeneko hitzaldia egin zen; Katixa Agirre, Edurne Portela eta Iban Zaldua idazleek literaturak memoriarako egindako ekarpenaren inguruko hausnarketa egin zuten. Osatu da Gogora Institutuaren gida didaktikoarekin lotutako edukien plataforma birtuala. Guztira, 131 lekukotza-bideo jarri dira hezkuntza komunitatearen eskura, eta 5 bideo-bilduma ere gehitu dira.

## *3. APORTACIONES EDUCATIVAS DE LA MEMORIA RECIENTE*

*En la apertura de la biblioteca se celebró la conferencia "Literatura eta Memoria" donde los escritores Katixa Agirre, Edurne Portela e Iban Zaldua reflexionaron sobre la aportación de la literatura a la memoria. Se ha completado la plataforma virtual de contenidos de Gogora vinculada a la guía didáctica. En total se han puesto a disposición de la comunidad educativa 131 vídeos testimoniales, habiéndose incluido 5 videos recopilatorios.*